



Ettxanoetaurre etxebizitza

Aldacrak: Ettxanoetak
Ahozkoa: Ettxanuétak



43° 9' 36"

2° 34' 6"

Berriz Iruditan / J.A. Ramos

Dokumentu guztietan, baserri hau parean duen *Ettxanoeta* (**Ikus Ettxanoeta**) baserriarekin lotuta agertzen da. Nahiz eta egun eraikin autonomoak izan, badirudi hasiera batean familia berarenak izango zirela. Baliteke aurrean aurkitzen zen eraikina osagarria izatea, eta arnaga moduan funtzionatu izana. Gerora, agian, ezkerreko aldean bizitzeko zatia egin omen zen. Dena den, auzotarren artean *Ettxenuétak* moduan izendatzen dituzte etxe bi horiek.

Egitura bitxia daukan baserri etxea da, eta zatika eginda dagoela dirudi, ez baitu batasunik. Hala ere, deigarriena fatxadaren ezkerrean daukan arku barrokoa da, inguruan hainbatek duenaren modukoa, eta gainetiko leihoak. Sarri gertatzen den bezala, harlangaitza baliatu zuten hormetan, eta harlandua, arku eta leihoe-tarako.

toponimia

Izenaren esanahia argia da, Ettxanoeta baserriaren aurrean dagoen etxea baita.